

# **Euskaltegiaren kurrikulu- -proiektua**

*Joseba Ezeiza  
(Legazpi 6 Euskaltegia)*

*Artikulu honek Legazpi 6 euskaltegiako kurrikulu-proiektuaren nondik-norako nagusien berri jakiteko parada eskainiko digu. Oinarrizko Euskalduntzearen Kurrikuluaren ekarpenak aztertuta, eta horien itzalpean tokian tokikoari aitortuz ari dira bertako arduradun didaktikoak proiektua hezurramitzen, Euskaltegiaren orain arteko jarduna ere ondo gogoan harturik.*

## **Programatik eredu kurrikularra**

Legazpi 6 euskaltegiak honez gero 15 bat urteko ibilbidea egina duenean proposatuko duen eredu didaktikoa aurkeztera gatozenez, zilegi dirudi eredu horren sorburuaz hitz eginez hasia.

Eredu hau ez da, noski, atzo goizean sortua, baina ezin ukatu berezko forma HABEK onartutako kurrikulu berriaren itzalpean hartu duela. Edonola ere, egitasmo hau helduak euskaldundu eta alfabetatzeko kalitatezko eskaintza egin nahiak bultzatuta jaio zen eta zentroko irakas eta zuzendaritza-taldearen ekimenez garatu da euskalduntze-alfabetatzeari geure txikitik ekarpen aberasgarria egiteko asmotan.

Ahalegin hau orain artekoa desegokia izan den seinale ote? Urte hauetan “eredu zaharra” usteldu eta berritu beharri emandako erantzuna? Geure ikasgelak haize berriz egurasteko premiaren adierazle? Ez dugu uste hori denik proposamen honen berezko iturburua; ez diogu guk behintzat zeregin hori egotzen. Hori berrikuntza kurrikularren ingurunea litzateke, hots, agertutako hutsuneak osatzera datorrenarena. Baina, guk behintzat, ez dugu geure burua “berrikuntza kurrikularreko” prozesuan murgilduta ikusten, “eraikuntza kurrikularrenean” baizik.

Izan ere, sektorearen egituratzeari ekin zitzaionetik hona aldaketa ugari eta azkarrak gertatu dira euskalduntzearen munduan zein hizkuntzen irakaskuntzarenean eta horien artean adierazgarrienetako batzuk irakaskuntza planteamendu “kurrikularren” eremuan ezartzetik etorri dira.

Garai batean administrazioak euskaltegiak pedagogikoki kudeatzeko “programa” soil bat eskaintzen zuen eta hori jokabide didaktiko ugariaren

sorburu izan da bai gure zentroan bai kanpoan. Aniztasun horrek irakas-  
letik irakaslera eta urtetik urtera alde handiak eragin ditu planteamendue-  
tan eta, horren ondorioz, zenbait arazo sortu dira: elkarren artean  
alderatzeko zailtasunak, ahalegin interesgarri asko alperrik galtzea, ira-  
kasle eta ikasleen noraeza... Geure lana aztertu eta ebaluatzeko eragoz-  
penak azken batean. Horrekin batera, haize berriak etorri zaizkigu  
hizkuntzen irakaskuntzaren eta eskolaren mundura: testua, konstruktibis-  
moa, autonomia... eta kalitatezko eskaintza egiteko kezka haize horie-  
tan murgiltzera eraman gaitu, baina behin baino gehiagotan zurrumbilo  
horietan dinbili-danbala ikusi dugu geure burua, babesik gabe. Horrek  
hausnarketa eta erantzun eraginkorra eskatzen zuen.

Izan ere, zentroa normalizatu eta egituratzekotan, garbi zegoen alderdi  
honi ere ekin behar zitzaioela nolabait, eta ezin hala izan bidean egindako  
ahalegin guztiak zapuztuta. Bilatu behar zen marko bat helduen euskal-  
duntzerako hipotesi serio bat agertuko zuena baina, aldi berean, ikuspegi  
ezberdinei tokia utziko ziena. Horretan, euskalduntze-alfabetatzearen  
sektorean gero eta nabarmenagoa zen eskariari erantzunez, administrazioak  
bateko oinarrizko kurrikulua proposatu du eta horren baitan marko  
ezin egokiagoa aurkitu dugu geure lanari behar zituen ikutuak emateko.

Horratx berritzera bai baina batez ere “programaren” muga hertsu eta ito-  
garriak gaintzera datorren egitasmoa; kurrikulua eraikitze ahalegin  
serio eta hausnartua eta ez hainbeste berrikuntzarako proposamena.

Horrenbestez, lehenik eta behin, dokumentu honetan proposatzen den  
aldabidea prozesu baten mugarria baino ez dateke; beste mugarri bat  
etengabeko hobekuntzaren bidean. Mugarria dela esan behar, hala ere,  
esperientzia luze eta hausnarketa sakonaren bilgune egin baitugu egitas-  
mo hau eta bat-bateko eta erabateko aldaketak ekarriko ez dituen arren,  
euskaltegiaren jokabidearen erreferente izango delako hurrengo urteot-  
tan; hurrengo aurrerapausoaren abiapuntu, alegia. Mugarria, gainera,  
“programa”ren izpiritutik harantzago joanik, jardunbide kurrikularren  
irizpideak aintzat hartzen dituelako. Eta horrek dimentsio sozial handia-  
goa ematen dio, bai euskaltegiaren barruan eta bai euskaltegitik kanpo  
ere; izan ere, ikasle/irakasle/zuzendaritza-taldearen ekarpenak jasotzeko  
tresna egin nahi izan dugu, baina, aldi berean, euskalduntze-alfabetatze-  
aren sektorea normalizatzeko egiten ari den ahaleginari mesedegarri izan  
dakiokeena, gure zentroa ezin baita ezagutu ez bada marko orokor horren  
barruan. Mugarria, bestetik, euskalduntze-alfabetatze prozesuaren  
dimentsio eta osagai desberdinak aztertu, ulertu eta azaltzeko tresna  
delako, alegia, geure jardunbidearen hutsuneen diagnosis bideratuko  
duen erreferentea; mugarria, halaber, hausnarketa bultzatuko duelako,  
hots, irakasle bakoitzak bere irakas-lanari ispilu honen argitan begiraten  
dionean aurrerabidean pausoak emateko laguntzeko asmo bete delako.  
Mugarria, azken batean, bere babesean aukera berriak ematen dizkigula-  
ko hobebidean jarraitzeko, baina euskarri sendo bati heldurik.

Izango ahal da espero dugun indargarria! Emango ahal digu eskatzen  
diogun guztia! Hala izan bedi, baina ez dezagun ahaz hau normalizazio  
eta indarberritze-ahaleginaren elementu bat baino ez dela eta horren

garapenerako soilik ere hainbat eta hainbat oztopo gainditu beharko ditugula oraindik eta hori ezin izango dela egin beharrezko izango diren orotariko baliabideak eskuratu gabe.

## **Oinarrizko kurrikuluaren ikuspegi teorikoak**

Egitasmo honek eskatzen duen ahaleginak eragindako egarria asetzeko hiru iturri ditugu eta hiruretatik edan beharko dugu guztiz aseko bagara: hizkuntzari buruzko ikuspegia, ikaskuntzari buruzkoa eta erreferente sozio-kulturala. Hirurei ematen zaie gainbegirada HABEk idatzitako dokumentuaren sarreran eta hiruren eremuan ekarpen interesgarriak egiten ditu.

Laburbilduz, zera ematen digu aditzera:

- Hizkuntza komunikazioa da eta komunikazioaren esparru naturala, testua.
- Hizkuntza ikastea gaitasun komunikatiboa etengabe jasotzea da eta gaitasun hori diskurtsoen kudeaketaren bidez azaleratuko da.
- Ikaskuntza testuinguru jakinean gertatzen da, baina beti erabilera du jomuga eta horrek erreferente kulturalen jabe egitea ere esan nahi du.

Horiek horrela, zera eskaintzen du:

- Programa berria, eduki pragmatiko, psikolinguistiko eta formalez hornitua.
- Aurrerabidea ebaluatzeko marko berria: gaitasun komunikatiboa.
- Testuinguarekiko sentsibilitatearen aldarrikapena.

Horrenbestez, hauxe dateke ikas-irakas prozesuaren gidari izan behar duen egitasmo honen zeregina: euskaltegiaren jardunerako *proposamen didaktikoa egitea* oinarrizko kurrikuluan zerrendatzen diren edukiak *gaitasun komunikatibo-kulturala* eskuratzeko tresna moduan erabili eta hurrenkeratzeko, gaitasun horren jomuga *erabilera* dela aintzat hartuz. Hots, euskalduntze-alfabetatzerako HABEk egindako oinarrizko kurrikulua ikasgelan erabiltzeko tresna bihurtzeko bidea erakutsi. Horrek zenbait kontu aztertu eta ebaztea eskatuko du; hautuak egin eta erabakiak hartzea, alegia. Baina, beti ere, oinarrizko dokumentuan egiten den proposamenaren gaineko hausnarketa sakonaren ostean.

Hona hemen hausnarbide horren hari nagusiak: HABEren dokumentuan aipatzen diren hiru *Oinarrien* artean zehaztuena *Hizkuntzari buruzko ikuspegia* dugu; izan ere, sarreran aukera zintzorik egiten ez bada ere, edukien atalera jo eta bertan irudikatzen da nolabaiteko hautua: trebetasunak erabiltzen dira edukiak ardazteko irizpide nagusi gisa eta eduki pragmatiko, psikolinguistiko eta formalak horien menpe zerrendatzen dira. Alegia, trebetasunen “inventarium” moduko bat egiten da, hauek *testuaren pedagogiak* sujeritzen duen ikuspegitik aztertuz. Hautu orokor horri oso bidezko deritzogu, gure geure jokabidearekin bat baitator baina, hala eta guztiz ere, atal honi beha zenbait zalantza sortu zaizkigu:

- 1 Edukiak antolatzeko trebetasunak aukeratu izanak inpliketzen ote du eduki psikolinguistikoek hartzen dutela lehentasuna? Hots, hizkuntzaren dimentsio estrategikoari ematen zaiola lehentasuna? “Oinarriak” eta “Metodologia” atalen irakurketak ez dute halakorik pentsarazten, baina, hala balitz, uste dut badagokeela zertan eztabaidatu.

- 2 Eduki horiek denak gutxienez hartu behar ditugu? Badugu aukera eduki horietako batzuk baztertu eta beste batzuei (gaiei, eginkizunei, esparru komunikatiboei...) lehentasuna emateko? Hor zerrendatzen direnak “gutxienez hartu behar dira” hartu behar dira?
- 3 Maila guztietan eduki irizpide berberei eutsiz antolatu behar ditugu? Ez al da nahikoa nabarmen zenbait mailatan behintzat trebetasun isolatuak ez direla errealitate didaktikoaren ardatz?
- 4 Mailaz maila alderdi batzuk beste batzuen gainean lehentasuna hartzen badute, baliagarriak ote dira ebaluazio-irizpideak oinarritzko dokumentuan ageri bezala formulaturik?
- 5 Alderdi formalen inguruko erreflexioari zein tratamendu eman behar zaio marko berri honetan? Eduki formal/pragmatikoak trebetasunen mapa horretan sakabanaturik agertzen dira; horrek esan nahi du bigarren mailara eraman behar ditugula eta zeharbidez txertatu ikasprozesuan?

Galdera horiei erantzungo badiegu, ezin *Ikaskuntzari buruzko ikuspegi*az hausnartu gabe egin, batak bestearekin lotura zuzena baitu noski. Baina, HABEren oinarritzko kurrikuluak honen gainean ematen dituen jarraibideak oso lagungarriak badira ere, horien gaineko hausnarketak ere galdera berriak sortzen ditu:

- 6 Edukiak nola landu? Itemizazioari eman lehentasuna? Integrazioari? Nola integratu?
  - 7 Ikuspegi mekanizistari eutsi ala konstruktibismoaren ekarpeni heldu?
  - 8 Irizpide berberak erabil maila guztietan?
- Edozein modutan zalantza eta eztabaidarik korapilatsuenak, *Oinarri sozio-kulturalaren* gaineko hausnarketak pizten ditu. Azken batean, euskalduntze-alfabetatzearen azken helburuen sorburu eta jomuga testuinguru sozial, politiko eta kultural jakinari uztartuta daude, baina testuinguru horretan, zoritxarrez, euskararen estatua ez da nahi genukeen bezain ona eta horrek zaildu egiten du erabakiak hartzea. Izan ere, arlo honi ekitean zailtasunak daude, besteak beste, euskaldunaren definizioa egiteko, kurrikulura ekarri beharreko erreferente soziala hautatzeko eta ahalegin honek guztiak marko politiko orokorrean duen tokia eta balioa ulertzeko. Hona hemen horrek denak pizten dituen galdera nagusiak:
- 9 Zer da euskaldun osoa? Euskaldun “osoa” izateko “kultoa” izan behar ote da? Zerekin lotzen dugu “kultura” hitza kasu honetan? Erreferente kultural esplizituak ekarri behar ditugu eskoletara ala hizkuntzaren osagai implizituzat jorratu besterik gabe?
  - 10 Zein da kurrikulura ekarri behar dugun errealitatea? Ikasleek bizi dutena? Balizko Euskal Herri euskaldun/elebidunean emango litzatekeen? Zein hizkuntz ereduri eman lehentasuna?
  - 11 Kurrikuluaren eraikuntza hau nola txertatzen da hizkuntz politika orokorraren markoan? Erabilera sustatzeko egitasmo nagusien barruan zein da euskaltegien zeregina?

Zerrendatu ditugu galderok aztergai sakonak jartzen dituzte hizpide inondik ere eta, horrenbestez, ez dute berehalako eta erabateko erantzun borobila izango, noski. Are gehiago, galdera horiek denek prozesuaren aurrerabidean dimentsio ezberdina hartzen dutela pentsatzen dugu eta, horregatik, kurrikulu-diseinua jasoko duen dokumentuaren hasierako honetan aztertzea baino sujerenteagoa deritzogu bere horretan, hots, zabalik uzteari, era horretara izpiritu kritikoa sustatuko dugulakoan. Alegia, lan hau bera ere irekia den heinean, izan daitezela galdera horiek behin eta berriro aztertu eta berritzeko erreferente kritikoa; ezin baita jokabide kurrikularra etengabeko hobekuntzaren izpiritutik at ulertu. Haatik, horren ordeztu kurrikulua inplementatzeko eredu bat irudikatuko dugu eta dokumentu honetan barrena garatuko; horrela, uneoro galdera horiek buruan izango ditugularik, egingo ditugun proposamenen bidez ezagutuko da gaurko egunean eta mailaz maila ematen diegun erantzuna, behin-behinekoa beti ere.

### **Kurrikulua eta programa**

HABEren oinarrizko proposamena gauzatzera, hots, dimentsio praktikoa ematekotan, ezin alde batera utzi programa jasotzen duen atala. Programa honek hiru maila zehazten ditu eta bakoitzari dagokion atalean, ikasleek amaieran egiaztatu beharreko gaitasuna (azpigaitasunak ere bereizten dira), hori ebaluatzeko irizpideak eta landu beharreko edukia (pragmatikoak, psikolinguistikoak eta linguistikoak) jasotzen dira. Irizpide antolatzailea trebetasunena da, hots, hori dena trebetasunez trebetasun zehazten da.

Programa formulatzeko modu honek baditu gure begietan zenbait ekarpen interesgarri. Gaitasun komunikatiboari lehentasuna eman izana, adibidez, oso ekarpen baliotsutzat jotzen dugu, horren bidez ebazten delako azken urteotan buruhauste ederrak eragin dituen eztabaida; alegia, emaitzak zeren arabera ebaluatu, ikasleen ezagupenen edota beren hizkuntz eginkizunen arabera? Ikuspegiaren aldaketa honek prozesuen benetako iraupena (zenbat ordu ematen diren helburua lortu bitartean) eta jarduera didaktiko ezberdinen emaitzak (lorpen horien nolakotasuna, kalitatea) hobeto estimatzen lagunduko digu; azken batean, ikasleen aurrerabidean ebaluatuko duguna (gaitasuna) azken helburuaren ardatzean dagoelako zuzen-zuzen errotua, erabilerarenean alegia. Alde honetatik, hiru maila soilik zehaztu izanak egokia dirudi, norbanakoen banakako prozesuak eta erritmoak ezberdinak izanik, ibilbidean gaitasuna neurtzeko une asko seinalatzeak (12 urrats, adibidez) distortsioa baitakar. Alegia, ez dira gutxi ustez une batean urratsa gainditu ez eta aurrera segituta halako batean egoera horri buelta ematen diotenak edota alderantzizko jokabidea dutenak. Gainera, epealdi laburretan ebaluazio sumatiboak egin beharrak tartea kentzen dio, nolabait, ebaluazio jarraiarari. Bestetik, antolatzeko modu honek ahalbidetzen du EGA baino lehenagoko gaitasun-agiriak sortzea eta bideratzea, dela eremu jakinetarako (administrazioa, irakaskuntza...) dela modu irekian (orotariko hiritarrentzat). Gizartearen eskakizunak ikusirik, hori ere aurreikusi behar zen epe luzeko egitasmo batean.

Edukiak hautatzeko orduan ere asmatu egin dela uste dugu; hau da, guztiz onuragarria iruditzen zaigu eduki linguistikoez gain, psikolinguistikoak eta pragmatikoak zehaztea eta maila berean jartzea. Aukeran hutsunea sumatzen da eduki kulturalak eta gaiak hautatzeko irizpiderik ere ez baita ematen. Hortaz, badirudi zeregin hori euskaltegiaren esku gelditzen dela.

Horretaz gain, programa honek baditu beste zenbait ezaugarri guztiz ase-  
tzen ez gaituztenak.

Horrela, edukiekin jarraituz, programak “inventarium” moduko bat eskaintzen du, irizpide antolatzaile gisa trebetasunena erabiliz. Zerrenda horiek, gainera, maila guztietan modu berean formulatzen dira.

“Inventarium” horrek, aukeran, edukien inflakzioa dakarke; hots, hasiera batean ematen du kurrikuluaren berrikuntza eduki-mota berri eta ugaria-  
goak jorratzean datzala eta iruditzen zaigu ikasprozesua irudikatze-  
ko behintzat zenbait alderdi globalizatu beharko ditugula, bestela piñuek  
mendia ezkutatu egingo digute eta. Ikasgelako lanean ere aztertu beharko  
da nola integratu edukiak multzo nagusiagotan “programa bete beha-  
rrak” edukien metaketara eraman ez gaitzan.

Bestetik, irizpide antolatzailea trebetasunarena izanik, zenbait eduki  
behin eta berriro errepikatzen dira eta ez da oso garbi ikusten zein izan  
daitezkeen lehentasunak. Horrenbestez, egitasmoa zehaztera, beharrezko  
iruditzen zaigu ikuspuntua aldatzea, hots, eduki-mota bakoitzak trebeta-  
sun bakoitzarekin duen lotura aztertzea eta zerrendak berrantolatzea;  
horrek lagunduko digu ziurrenez edukiak ikasgelan mamitzeko bidea  
erabakitzen.

Izan ere, hautatutako irizpidea bera ere ez zaigu egokiena iruditzen pro-  
zesuen une guztietarako. Hein batean harritu egiten gaitu azken helburua  
erabilera izanda nola ez den analisia testuinguru edota eginkizun komu-  
nikatiboetatik abiatuta egiten, trebetasunen ikuspuntutik izan ordez.  
Agerikoa da, hortaz, honetan ere izango dugula zer egina oinarritzko  
dokumentu hori geure habira ekarriko badugu.

Azkenik, prozesua hiru mailatan irudikatzeak hainbat alderdi on izan  
arren (aipatu berri ditugu hain zuzen), ez dugu oso operatibo ikusten  
ikas-modulu txikienetan behintzat, ikasturte batean (are gutxiago udako  
ikastaro batean) ezinezkoa baita askotan maila osoa lantzea. Hortaz, gure  
egitasmoan prozesua nola zatikatu ere aurreikusi beharko dugu eta  
horrek atal bakoitzari berezko nortasuna emango dioten adierazleak  
zehaztea eskatuko du.

## **Legazpi 6** **euskaltegiko** **kurrikulu-** **proiektua**

Horiek horrela, ez dugu sarrera hau amaitutzat emango euskaltegiko  
kurrikulu-egitasmoaren irudi bat eman gabe. Horrek lagunduko baitu  
agertu ditugun hausnargaien dimentsio praktikoa zein den ulertzen.  
Alegia, dokumentu honetan barrena saiatuko gara seinlatu berri ditugun  
galderei erantzuten eta horren bidez irakaskuntzarako proposamen zeha-  
tza hezurmamitzen, baina zehaztasun gehiagoren bila joan baino lehen  
“imajina” dezagun ikasprozesua ikasgelan. Egin dezagu apustu eredu

baten alde. Eredu horretan, bost gune didaktiko edo modulu ikusten ditugu *Hastapenak*, *Oinarriak*, *Trebakuntza*, *Hobekuntza* eta *Sakontzen* ize-nez bataiatu ditugunak. Hurrenez hurren modulu horiek IA, IB, 2, 3A eta 3B maileri dagozkieke. Modulu hauek ez dira edukien arabera mugatuko soilik; aitzitik, ikasprozesuaren unearen ezaugarriari beha, metodologia eta egituratze propioa izango dute eta horrek prozesuaren harian berezko nortasuna egotziko die.

### **Ikasprozesuaren oinarrizko ezaugarritzea**

Ezaugarritze-lan hori egiteko, kontuan hartu ditugu une bakoitzean aurrerabidean dagoen ikasleari hizkuntzari buruz eta ikaskuntzari buruz zein ikuspegi eskain diezaioketun; hots, zein alderdik hartuko duten lehentasuna urrats bakoitzean. Eta, horren arabera, hona hemen egitasmo honen planteamendu didaktikoaren jarraibide nagusiak.

Prozesuaren hastapenetan (IA maila) hizkuntza baliabide-multzoa besterik ez da. *Eduki formalak* dira ardatz. *Funtzioa* da hitz gakoa, kontzeptu estatikoa, *forma eta esanahia estuki lotuta* agertuko dituen. Modulu honetan ikuspegi mekanizistari eutsiko zaio nolabait, baina memorizatze ulerkorra sustatuz. Metodologia hartzailea erabiliko da. Maila honetan zama kultural nabarmena duten hizkuntz adierazleak sustatzen hasiko gara euskarak berekin duen kulturarako iraganbidearen lehen urrats gisa.

Prozesuaren bigarren aldian (IB mailan), baliabide horiek elkarren artean nola uztartzen diren ikertzeko aukera eskainiko zaie ikasleei. Trebetasunak eta *Eduki psikolinguistikoak* izango dira ardatz nagusiak. *Interakzioa* izango da hitz gakoa; kontzeptu dinamikoa, erabilera errazago eramango gaituena. Maila honetan *Forma esanahiaren arabera nola aldatzen den* ezagutzen lagunduko zaio ikasleari. Memorizatze ulerkorraz gain, ikasleen aurreko ezagutzak eta ezagutza-eskemak moldatzeko prozesuez ere baliatzeko eskatuko dieten eginkizunak proposatuko zaizkie. Metodologia berreraikitzailea erabiliko da. Maila honetan kultur adierazle linguistikoan lanketan jarraitu eta, gainera, erabiliko diren testuen artean euskal kulturarekin eta euskararen egoerarekin zerkusia dutenei tokia egingo zaie, ikasleak euskararen egoeraz sentsibiliza daitezten.

Prozesuaren hirugarren aldian (bigarren mailan), hizkuntzaren egitura nagusien eremuan murgilduko dugu ikaslea. Hizkuntza testua da eta *eduki pragmatikoe*k izango dute lehentasuna eta horien artean “*testu-motak*” atalekoek batez ere. *Testua* izango da hitz gakoa; berriro ere dimentsio estatikoa duen kontzeptua; esaldiaren eremua gaintitzen duena, ordea. Orain, hori bai, *esanahiari forma ematea izango da helburua*, ikaskuntza esanguratsuen bila; hortaz, *Negoiazioa* izango da bigarren hitz gakoa. Metodologia komunikatiboan oinarrituko dira eginkizun guztiak. Maila honetan ikasgelatik kultur ekintzak bultzatuko dira; hots, euskal kulturarekin lotutako ekintzetan (festak, azokak, eskulangintza-tailerrak...) parte hartzea bultzatuko da, testuetan kultur gaiak erabiltzeari eta hizkuntzaren lanketan kultur adierazleen lanketari utzi gabe.

Prozesuaren laugarren aldian (3A mailan), hizkuntza eginkizuna da, testuinguruarekin harreman estua duen zera bat. Maila honetan, *eduki pragmatikoen* beste ardatzera joko genuke *kontestuetara* alegia. Horrela hizkuntzaren *Testuinguruarekiko atxikimendua* ezagutzen lagunduko diogu ikasleari estrategia sozialak bultzatuz ataza komunikatiboen bidez. Horietan, testuinguruaren arabera *esanahi berak nolako forma hartzen duen* ezagutaraziko diogu ikasleari. Modulu honetan produktu kulturalen harreman estua izateko aukera bilatuko da (antzerkia, zinema, komunikabideak...) horien kontsumoaren sustapena bilatuz.

Amaierako moduluan (3B mailan) hizkuntzaren azterketa ikaslearen eremura eramango dugu bete-betean, bere buruaren ezagutzatik *hiztun eraginkor* izatera iragan dadin. Modulu honetan *Testugintzak* bilduko ditu *Testua* eta *Testuinguruaren* kontzeptuak. *Forma manipulaturik esanahia nola aldatzen den* ezagutzeko aukera eskainiko zaio ikasleari. Aldi honetan, esperientziak hartuko du lehentasuna eta hori bultzatzeko atazen metodologiari utsiko zaio, baina osagai pedagogikoari lehentasuna emanez. Maila honetan euskal kulturaren murgiltzeko aurreko mailetan erabilitako tresnez gain, literatura ere erabiliko da, gozamenerako bide izan daitekeen heinean.

### **Eta gero, zer?**

Egin dugu, bada, HABEren oinarritzko kurrikulu diseinuaren gaineko hausnarketatik atera ditugun ondorioen laburpena. Horrekin, euskaltegi-ko kurrikulu-proiektuari testuinguru eta zeregin jakina egotzi nahi izan diogu. Postura hartu dugu.

Horrela, oinarritzko kurrikulu-diseinu honi ongi etorri abegitsua egin diogu, noski, eta horrek berekin dakarren zeregina aintzat hartu. Gogo onez, gainera, horri esker geure artean jada piztuta zegoen izpiritu kurrikularren sugarrak indarra hartu eta su bizi egin baita. Izan ere, egitasmo horren desafioak dituen berezko eskakizunei aurre egiteko modua aurkitu dugu nolabait.

Baina, aldi berean, hein bateko irekitasun eta malgutasuna eskatzen dugu, programaren izpiritu zurrunik, jokabide kurrikularra iragateko laguntza eta orientazioa. Espero dugu, halaber, heziketa eta hizkuntz politikek horren alde egiten asmatuko dutela eta hiritarrek, oro har, berritze-lan honi eskaini diogun gogoia estimatzen jakitea. Orain proiektua bete-betean aplikatzea da hurrengo erronka, euskaltegi-ko kurrikulu-proiektua prozesuaren erdigunea besterik ez baita. Horretan, izango dugu zer aldatu eta zeri egin aurre. Horren jakitun gara. Baina geure ibilbidearen jabe izan nahi badugu, horretarako kemena ere aurkitu beharko dugu eta prest gaude. Hori baita hobekuntzarako bidea.

Ahalegin hau guztia izango ahal da nahi bezain emankorra! Hona hemen behintzat horren lehen fruituak, esku tartean dugun egitasmoan mamituak.

### **Bibliografia**

**HABE.** *Helduen euskalduntzearen oinarritzko kurrikulua (argitara eman gabeko behin behineko txostena).*